



'Burdina eta sua' ikuskizuna Chillida-Lekun igande iluntzean. Jende asko bildu zen, eta gozatu egin zuen emanaldiarekin.

Udarari ongietorri borobila Chillida-Lekun

■ Mitologia, historia, musika, dantza, bertso eta su artifizialekin ospatu zen udarako solstizioa.

EGURALDIAK oraingoan ez zuen huts egin eta udarak ongi etorri magikoa jaso zuen igande iluntze-gauean Chillida-Leku museoan. Burniaren historiak eta mitologiak bat egin zuten, sua, dantza, musika eta bertsoarekin: ilunbistan hasi eta izar azpian bukatu, dena elkarren bueltan Xuberoako bost mendietako dantzak dantzatzan. Jende asko bildu zen ikuskizunera, eta Hernanitik debalde jarritako autobusek lagundu zu-

ten horretan. Udaletxetik ere ordezkaritza zabala izan zen ekitaldian, Joxan Rekondo alkatea buru zutela.

'Tiriki-tiki tauki mailuaren hotsa'

Mixel Etxekopar artista zuberotarrak hasi zuen Chillida-Lekuko ekitaldia txori kantuak imitatu eta txirila joaz. Ondoren, Maialen Lujanbiok eta Jon Maia bertsolariak bertsoan eman zioten ongi etorria urte garai berria-

ri: *San Joan gaua izan aurretik/sorginen gaua izan zen* bota zuen Lujanbiok. Olatz Beobideren narrazioak Solstizio festa mitologia, historia eta artea uztartu zituen, Chillidaren eskulturetan berrina: burniarren garrantzia Euskal Herriko historian, udarako solstizioaren sinbologia eta ohiturak hemen eta munduko beste herrialdeetan eta abar.

Ekitaldia ilunbistan hasi zen, eta gaua iritsi ahala solsti-

zio festak gero eta xarma bereziagoa hartu zuen. Momentu politenetakoak txalaparta eta dantzak elkarrekin egindako emanaldiak izan ziren. Ia gauerdian, dantza, sua eta San Juan koplak izan ziren protagonista, eta Mixel Etxekoparrek ikusleak dantzan jarri zituen. Eta dena bukatua zirudienean, Zabalagatik beherakoan su artifizialek argitu zuten ia Chillida-Leku osoa. Publikoak etxera bidean txaloka eskertu zuen detailea. □



Oreka TX-eko txalapartariak.



Olatz Beobide aktorea.



Aukeran dantza taldea eskultura baten bueltan dantzan.

GOBERNU BATZARRA

Gerra Zibilean fusilatutakoei buruzko ikerketa egingo du Unibertsitateak

UDALAK ikerketa agindu dio Euskal Herriko Unibertsitateari Gerra Zibilean Hernanin afusilatu zituztenei buruz. Joan den asteko Bozeramaile Batzordeak onartu zuen proiektua eta gaurko Gobernu Batzarrak emango dio azken onarpena.

'Hernani 1936' izena du ikerketak, eta Hernanin hil zituztenen zerrenda eta datu soziologiko eta politikoak bildu nahi ditu: bakoitzaren ibilbidea, inguru soziala, joera politiko eta sindikalak. Ikerketak dokumentu historikoak eta garaiko testigantzak bildu nahi ditu horretarako. Emaiza 2006an argitaratuko da, afusilamenduen 70garren urteurrenean.

Bizikidetza Batzordea

Udalak, bestalde, Bizikidetza Batzordea sortzeko proposamena martxan du. Joxan Rekondo Alkateak berak proposatu zuen joan zen asteko Bozeramaile Batzordean. Oinarria izango du Eudel ek (Euskal Udalen Elkartea) bizikidetzaren inguruan onartutako adierazpena. Adierazpenaren ardatzak dira: "askatasunaren, aniztasunaren eta giza eskubideen defentsa eta terrorismoaren edo gerraren biktimekiko elkartasuna". Udalak zabaldukoaren arabera, Batzordeak bizikidetzarekin zerikusia duten beste gai batzuk ere landuko ditu: adibidez, "herritarren partaidetzaren sustapena, edota elkarriketa eta komunikazioa erabiltzea integrazio politikorako eta gizarte kohe-siorako lanabes gisara". Alderdi politikoek iraila arte zabalik dute epea Bizikidetza Batzordeari ekarpenak egiteko. □

Kronikak 4 urte

HERNANIKO Kronikak lau urte beteko ditu bihar, San Joan bezperan eta zortzi orriko ale berezia aterako da. □

ETXE BERRI
GABERNA

- eguneko menua
- askeburukoak
- pincho berrak eta hotzak
- kazueliak
- pincho berezia: gaizka brotxeak

EtxeBerri 2 © 943551267

mikel armendariz
proiektu eta instalazio
elektrikoak
Tel. 649 846 422
HERNANI

**HERNANI
HIZKUNTZAK**
Gure Ingelesetxea

ZORIONAK Xabier, Cambridge
First azterketa gaitziteagatik eta
Zorte on, Irati, Juan, Aitziber, Ion,
Amaia, Ion Ander, Arantxa, Ander
(First), eta Urko eta Julen (Advanced)

**UDAKO IKASTARO
ERDI-TRINKOAK**
Maila guztiak: Haur eta helduak
MATRIKULA ZABALIK
Deitu Alan/Joe: 943 33 11 08
KALE NAGUSIA 41, 1

dekorazio proiektuak
gremio koordinaketa...

Inaki Alkorta
barne diseinua

Kardaberaz 39 - www.inakialkorta.com - 943 335431

Hernaniko kronikako laguntzaile:

ORAZUNE PROMOTIOAK

Aitor eta Amaia Parrondo Euskadiko txapeldun hirugarrenez segidan

■ Parrondotarrek Seguran irabazi eta Hernanira ekarri dute Nestor Basterretxearen eskultura, hiru aldiz segidan txapeldun gelditzeagatik.



Parrondotarrek dantzan sariaren aurrean. (Arg: Argazki Press)

AMAIA eta Aitor Parrondo berriz ere Euskal Herriko dantza sueltoko txapeldun izan dira Seguran. Bikote hernaniarrak bolada latza daramaki eta hirugarren aldiz segidan irabazi du. Txapelketako araudiak halaxe agintzen du eta Nestor Basterretxearen eskultura Hernaniko Udalarentzat izango da.

Parrondotarren atzetik, Asier Ena eta Maite Lazkano bergararrak gelditu ziren bigarren; hirugarren, Aitzol Ena bergararra eta Miren Illarreta donostiarrak, eta laugarren, Azkoitiako Azpitarte anai-arrebak.

Gauzak estu Parrondotarrek irabazten ikustera ohitu bagara ere, igandekoan gauzak estu izan ziren, epaimahikoen arabera. Beren hitzetan, aurreneko bosten artean borroka haundia izan zen. Gogoan izatekoa da Ena eta Lazkano, bigarren gelditu den bikotea 2001ean Euskal Herriko txapeldun gelditu zela. Segurako Dantza Suelto Txapelketak 20garren edizioa zuen aurtan. □

Maider Ansa aranoarrak irabazi du Euskal Herriko Kantu Txapelketa

■ Maider Ansak Arantza ahizpa pianoan zuela kantatu zuen eta adierazgarritasun saria ere berak irabazi zuen.

MAIDER Ansa kantari aranoarrak irabazi zuen Kursaaletan Euskal Herriko Kantu Txapelketa. Maiderrek Mikel Urdangarin abeslariaren Jadanik kantua abestu zuen, Arantza ahizpa pianoan lagun zuela. Aranoarrak, sari nagusiaz gain, adierazkortasunaren saria ere irabazi zuen larunbatean Donostian izandako txapelketan. Maider Ansak orain dela urte batzuk Her-

nanin bertan irabazi zuen Kantu Txapelketa.

Aitor lehengusuari

Maider Ansak Aitor lehengusu zenari eskaini zion txapela, eta kantu aukeraketan ere zerikusi zuzena izan du pertsona harenganako oroitzapenak. Ansa, Ereñotzuko Ozenki abesbatzan ez ezik, Tximeleta taldean dabil kantari, eta udaran herriz herri ibiliko dira. □

Hernaniko historia biltzen duen liburuxka salgai herriko misiolariak laguntzeko

HERNANI Historian Zehar liburuxka jarriko du salgai Parrokiko arteko Urrats Misio Taldeak eta Gaztea Taldeak. Asmoa da salmentatik ateratzen den dirua herriko misiolariari ematea.

Salmenta egunak izango dira: bihar arratsaldetik hasita ekainaren 27ra arte. Goizean 11:30etatik 13:30ak arte, eta arratsaldean 18:30etatik 20:30ak arte. Postua Tilosetako Karitateko tonbolan jarriko dute. □

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

- ▶ Taxiak: 943 550093
- ▶ Udaltzaingoa: 943 333288
- ▶ DYA: 943 464622
- ▶ Autobusak: 943 556662
- ▶ Anbulatorioa: 943 006666
- ▶ Jokalari anonimoak: 943 331103
- ▶ Alkoholiko anonimo: 943 331103

☎ FARMAZIAK

- ▶ Egunez: Bulnes Florida auzoa ☎ 943 557738
- ▶ Gaugez: Oa Usurbil. Poligono 1, 1 ☎ 943 376076

IRAGARKI MERKEAK

Itziño Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebra, reflexologia, auriculoterapia,...: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Sta Barbara 42)

Bi emakume behar dira etxeko lanak egin eta pertsona helduak zaintzeko. Bat astelehenetik ostiralera eta bestea asteburuan. Deitu: 655 741524

LOREZAINAK, garbiketako pertsonala, operarioak, zerbitzu ezberdinak, Eusko Jaurlaritzak eta Udaletxeetako sukalde laguntzaileak. Laster inkorporazioak Donosti, Bergara eta Hernanin. Dohaneke informazioa: 943 43 41 27

IGELTSEROAK, iturginak, arotzak, peoiak. Plaza fijoak Udaletxe eta Eusko Jaurlaritzan. Dohaneke informazioa: 943 43 41 27

ADMINISTRARI AUXILIARRAK. Udaletxe eta Eusko Jaurlaritzako plaza libreak. Laster inkorporazioak, Zarautz, Hernani, Usurbil, Beasain, Berrobi, Irun, Errenteria, Bergara eta Oñatin. Dohaneke informazioa: 943 43 41 27

EZINDUAK. Plaza fijoak erreserbatuak. Lortu lan postu bat Udaletxe eta Eusko Jaurlaritzan. Laster inkorporazio berriak. Dohaneke informazioa: 943 43 41 27

TELEFONISTA-RECEPCIONISTA. Plaza libreak Eusko Jaurlaritzak eta Udaletxetan. Laster inkorporazio berriak. Dohaneke informazioa: 943 43 41 27

TXOFERRA. Plaza libreak Eusko Jaurlaritzak eta Udaletxetan. Dohaneke informazioa: 943 43 41 27

ZAINTZAILEAK. Plaza fijoak haurrak eta 3garren adineko pertsonak zaintzeko, Udaletxe eta Eusko Jaurlaritzan. Dohaneke informazioa: 943 43 41 27

SUHILTZAILEAK. Inkorporazio berriak, parke lokal eta erregionaletan. Gutxigorabeherako soldata: 1.500 e. Dohaneke informazioa: 943 43 41 27

POLIZIA MUNICIPALA. 43 postu libre Udaletxe ezberdinetan: Hondarrabi, Hernani, Irun, Azpeitia, Azkoitia. Dohaneke informazioa: 943 43 41 27

BASOZAINA. 17 plaza konbokuak. Egin ezazu lan Euskal Herriko parke naturalean. Dohaneke informazioa: 943 43 41 27

UDAL LAN KONBENIOA

Mobilizazioa bihar Gudarien plazan

UDALETXEKO langileak konbenioa negoziatzeko maña eskatzen jarraitzen dute. Horren harira, biharko mobilizazioak deituta dago goizeko 11:00etan plazan. Aurreko astean Eudel eta CCOO akordio lortu zuten. □

SAN JOANAK

Gazte bazkarirako sarrerak salgai

KOADRILA egunean herri bazkaria egingo da Plaza Berrian. Gazte Asanbladak adierazi du txartelak salgai daudela Goiz-Argi, Ekos, Zintzarri eta Garin tabernetan. Gazte Asanbladak parte hartzera animatu du jendea. □

HITZALDIA

Euskaldunen historia eta Nafarroako Estatua

GAUR hitzaldia izango da eta gaia da: Nafarroa osoa, Euskal Herria kontzeptu kulturala eta Nafarroa Euskal estatua. Gaizka Aranguren izango da hizlaria eta Nabarralde ekimenak antolotzen du. Gaur, Biterin, 19:30etan. □

KRONIKA

